

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko 120 ikaslek unibertsitatearen Million Dollar Business lehiaketan hartu dute.

2011/04/18

Mondragon Unibertsitateko Bidasoako campusak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako 120 ikasle (Oñati eta Bidasoak) bildu zituen apirilak 12an, 9:00etatik 19:00etara, Million Dollar Business lehiaketan parte hartzeko.

V. edizio honetan, ikasleei aukera eman zaie zenbait gaietan ikasitakoa, enpresa simulazio baten bidez aplikatzeko.

Jardunaldia bitan egon da banatuta: Lehenean, taldeak/enpresak eratu dira, Oñatiko eta Bidasoako campusetako ikasleekin. Horrela, elkar ezagutzeko aukera izateaz gain, lehendik ezagutzen ez zuten jendearekin taldean lan egiteko aukera izan dute. Enpresa bakoitzak identifikagarri bat izan du taldea egiteko helburuarekin, eta talde bakoitzak bere "koloreen" eta helburuen alde borrokat du. Lehia ez ezik parte hartzea eta lankidetzaren ere sustatu nahi izan dira.

Bigarren fasean, simulazioari ekin zaio. Denbora horretan, parte-hartzaileek erabakiak hartu dituzte, finantzetan, marketingean, pertsonen inguruan, ingurumenean, kalitatean eta abarretan. Hiru ziklo ekonomikotan lortutako emaitzen arabera, enpresa irabazlea izendatu delarik.

Irabazleak Jose Carlos Del Rio, Eliot Gantxegi, Amaia Inurria, Jon Imanol Garmendia, Eneritz Muguruza eta Jon Ugalde izan ziren.

Honen inguruko argazki gehiago ikusteko:
<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza>

Bestalde, MUTELEBISTAKOAK ere izan genituen bertan eta laster erreportai bat ere izango dugu ikusgai.

